


LEIHOTIK

N° 14

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEAREN BERRIPAPERA
BULLETIN D'INFORMATION BIMESTRIEL DE L'INSTITUT CULTUREL BASQUE
2000ko APIRILA / AVRIL 2000



Euskararen zerbitzua

Euskal kultur erakundeak euskararen zerbitzua ukanen du. Hiru erakunde garrantzitsuenek (Estadoa, Departamendua eta Akitaniako Kontseilua) lanpostu berri horren diruztatzea onartu dute. Lehen abiapuntu bezala, aurrerapena da, euskararen aldeko ekintza konkretu batzua abian ezartzen ahalgo baititugu. Alabainan, erran gabe doa euskararen erabilpena toki publikoetan sustatzeko beharrak berak zein diren haundiak eta presazkoak! Izan dadin elkarte, herriko-etxe edo berdin sozial eta ekonomia munduan, euskararen normalizazioa bilatu behar dugu, euskarak bertze edozein hizkuntzen leku bera ukan dezan. Horretarako, euskarazko zerbitzuen eskaintza emendatu behar dugu, hizkuntza bera gaurretan, hala nola komunikabide eta teknologia berrietan sartzeko gisan, ahantzi gabe euskararen sustapena, familia eta eskoletan. Hizkuntza zerbitzu horren arduradunak ekintza horiek, urratsez urrats, akulatu eta obratuko ditu. Baina ez gaitezen horretan gelditi. Hizkuntza zerbitzua, aho mihi guzietan den Hizkuntza Kontseiluaren lehen harria dela errana izan da. Bizkitartean, azken hau ez daiteke alhan ezar, ez bada, hizkuntza politika iraunkor baten inguruan oinarriturik, egiazko elkarrizketa bat sortzen, erakundeen eta elkarleen artean. Gerokoak geroko, Euskal kultur erakundeak, Hizkuntza kontseilua helburu duela, partaide guzietan ahal bezain zubi amankomunen eraikitzea saiatuko da, hori ere baitezpadakoa baita hizkuntza baten normalizazioaren ardiesteko.

Le service de l'euskara

Le projet culturel 2000 de l'Institut culturel basque prévoit le renforcement de son secteur "Langue et patrimoine" en créant un poste à part entière pour l'euskara. Pour ce faire, un financement spécifique (État, Conseil général, Conseil régional) a été acquis dès cette année. C'est un premier pas positif en avant, tant l'offre et les besoins quotidiens en matière linguistique se font de plus en plus pressants. Il appartiendra au responsable de ce service de définir des priorités d'action, notamment pour la promotion de l'euskara dans la vie publique. De même, il accompagnera ou réalisera des actions linguistiques auprès des associations, des collectivités locales et du monde socio-économique (toponymie, signalisation bilingue, campagne de sensibilisation, création de guides spécifiques bilingues, etc.), tout en renforçant les partenariats avec les différentes institutions locales, nationales et européennes. Enfin, ce service de la langue est une préfiguration du Conseil de la langue basque qui ne verra le jour que si un vrai dialogue constructif s'instaure entre les différents partenaires institutionnels et associatifs, en faveur d'une politique linguistique appropriée à nos besoins. L'Institut culturel basque engagera très rapidement des démarches pour la mise en place de cet outil qui permettra de coordonner, de proposer, d'impulser et de réaliser des actions autour de l'enseignement, des médias et de l'intégration de la langue basque dans la vie publique.

Pantxoia ETCHEGOIN
Directeur/Zuzendaria

EUSKAL MUSIKA PARISEN

"Kantuketan" programaren helburuetarikako bat euskal kantari eta musikarien ezagutaraztea da, nola Euskal Herrian berean, hala kanpoan. Jadanik, alor horretan, taldeak sustengatzen ditugu. Hilabete honen urhentzean, ekintza berezi batean parte hartuko dugu: alabainan, lehen aldikotz, musikaren bitartez, Euskal kultur erakundeak Pariseko MUSICORA elgarretaratze haundian izanen da.

MUSICORA, lehen-lehenik, musika eta kantuen inguruan dabilzan artista, erakunde, lantegi, eskola eta tresna berezitzen egileen elkargune zabala da. Aurten, ehun mila jende goaitatzen dituzte, eskualde eta erresuma desberdinetarik etorriak, profesionalen eguna apirilaren 28an iraganen delarik.

Euskal kultur erakundeak erakutsimahain bat ukanen du: lehenik, "Kantuketan" programa osoa aurkeztuko baina oroz gaineratik, euskal artista bat ere han izanen dira. Haien artean, Beñat Achiary, Joël Merah, Beñat Amorena hirukotea, Donostiako Ramon Lazkano ereslari gazte famatua (honen obrak Patrick Zygmanski pianojoileak emanen du).

Bestalde, aurtengo Musicora-ren gai nagusiak akordeioa eta perkusioak baitira, Ildo taldeak (Paxkal Indo eta Christophe Hiriart) perkusioen herria deitu gunean joko du; halaber Antton eta Maddalen Errotabehere, eta Larralde anaiak trikitixan arituko dira.

Musicora baliatu nahi dugu ere Euskal Herriaren hobeki ezagutarazteko, hemengo kultura dinamikaren zabaltzeko, bai hango publikoari eta nolaz ez Pariseko aintz komunikabide desberdinei. Helburu horrekin, hemengo gertakari garrantzitsuenak aipatuko ditugu (festibalak, CD ekoizpenak, kultura programak, musikari lotu ekoizpenak, etabar.). Karia hortarat, Euskal kultur erakundeak hemengo kultura elkarte desberdinen lagungarri izan nahi du, egiazko partaidetzak idekiz informazioa zabaltzerakoan.

LA MUSIQUE BASQUE A PARIS

Dans le cadre de son programme Kantuketan, l'Institut culturel basque participera du 28 avril au 3 mai au Salon de la Musique "Musicora" de Paris, au Parc de la Villette, en partenariat avec l'Agence de tourisme du Pays basque. Ainsi, pour la première fois, le chant et la musique basques seront massivement représentés lors de ce rendez-vous musical de référence.

Musicora c'est, en quelques chiffres, une surface d'exposition de 25 000 m², 600 exposants de 20 nationalités (luthiers, facteurs et importateurs d'instruments,

Musicora
MusicMania
présentent

le salon
de la



éditeurs, informaticque musicale, régions, associations, institutions, (salles, écoles...), 12 000 instruments et 1500 musiques présentés et de 73 000 visiteurs en 1999 et 100 000 en 2000.

Le Salon de la Musique c'est aussi l'occasion de promouvoir et de développer des actions et des initiatives dans le domaine de la musique avec des profanes et des professionnels venus de tous les horizons ainsi qu'avec les professionnels du secteur, lors de la journée professionnelle du 28 avril.

Un stand Kantuketan permettra de faire connaître l'ensemble du programme et de promouvoir le dynamisme de la vie culturelle basque au travers de la diffusion de supports d'information sur les différents événements musicaux (festivals et programmes culturels) au Pays Basque. Cette vitalité culturelle sera surtout illustrée par les performances d'artistes locaux qui, à l'invitation de l'Institut culturel basque, se produiront tout au long du salon. Parmi eux, le trio Beñat Achiary-Joël Merah-Beñat Amorena et le compositeur de renommée internationale Ramon Lazkano, dont le pianiste Patrick Zygmanski interprètera trois pièces de sa création "Ilargi Uneak".

Le thème du Salon étant cette année "Jeunesse et Musiques", d'autres artistes se joindront à cette promotion du chant et de la musique basques comme le groupe Ildo (Christophe Hiriart, Paxkal Indo) qui animera le "Village des percussions" au rythme de la txalaparta ou les trikitilaris Antton et Maddalen Errotabehere, Christian et Patrick Larralde.

On le voit, dans l'esprit de Kantuketan, le Salon de la Musique de Paris sera l'occasion de faire connaître avec enthousiasme la richesse et la diversité de nos talents musicaux.

Salon de la Musique

Parc de la Villette - Paris (métro Porte de Pantin)

Ouvert au public du 29 avril au mardi 2 mai de 10 h à 19 h 30 et le mercredi 3 mai de 10 h à 18 h



NOUVELLES TECHNOLOGIES DE LA COMMUNICATION : LA CULTURE BASQUE "EN LIGNE"

Surfer sur le web, correspondre par courrier électronique, se connecter sur le réseau : ce nouveau langage a d'ores et déjà investi notre quotidien. Au Pays Basque comme ailleurs, l'intérêt pour Internet et les nouvelles technologies de la communication va grandissant. Face à ce nouveau défi, le monde culturel basque s'interroge, et se positionne déjà. Les sites se multiplient : la culture basque est désormais "en ligne".



"Changer l'image de la culture basque"

Dans les i... cette ouve... Inter... 199... d'hu... Phill... tallé... l'ave... cien... liée à... çoit... velle... form... conr... ture... mon... en n... Et je... faut

Le paysage technologique

Une entreprise enracinée



Quelques sites Internet / Zenbait web gune :
 EUSKO JAURLARITZA : www.euskadi.net/euskara
 ARGIA : www.argia.com
 EUROCITE : eurocite-basque.org
 PHILLIPS INTERNET CONSULTING : www.phillips-internet.com
 MIKEL DALBRET : perso.wanadoo.fr/aztarnak
 KULTULAN : perso.wanadoo.fr/kultulan

L'Eurocité basque

Deux autres institutions ont également fait le choix des nouvelles technologies, cette fois dans le domaine de la coopération transfrontalière. Après avoir signé un accord en 1993, le District de Bayonne-Anglet-Biarritz et la Députation du Gipuzkoa ont donné le jour au concept d'Eurocité basque, visant à faire de la zone littorale allant de Bayonne à Saint-Sébastien une

seule et même agglomération, forte de 600 000 habitants. Aujourd'hui, l'Eurocité a son site sur Internet, né de la nécessité d'échanger des informations de part et d'autre, de faire connaître le projet au niveau européen, et de faire prendre conscience aux habitants de cette agglomération qu'ils vivent dans le même ensemble urbain. "Ils le pratiquent le week-end pour aller faire leurs

courses, pourquoi ne pas le pratiquer pour se former, accéder à la culture, aux loisirs ?", précise Manuel De Lara, Directeur de la Communication et des Nouvelles Technologies de la Communauté d'Agglomérations B.A.B.. Ce site "portail" permet à l'internaute d'accéder à d'autres sites, et d'obtenir, ici encore en quatre langues, des informations culturelles, touristiques, et pratiques jamais réunies jusqu'ici sur un même support.

Culturel Basque, l'Agence de Tourisme du Pays Basque, les services communication ou culture des villes concernées. Grâce à un code d'accès, chaque partenaire met directement en ligne les informations qu'il souhaite valoriser, les traductions étant prises en charge par le District pour le français et l'anglais, et par la Députation pour l'euskara et l'espagnol. "Internet est une chance pour les territoires de communiquer, de nous amener à de nouveaux modes de relations entre nous", estime Manuel De Lara. "C'est ce qu'on est en train de réussir les uns et les autres. Au travers d'un outil - les nouvelles technologies - on a réussi à avoir une adhésion collective et à répondre à une demande collective de promotion. Et si nous avons un retard par rapport aux nouvelles technologies, nous allons le combler très vite."

Une chance pour les territoires

Pour alimenter ce site, un réseau éditorial a été mis en place, constitué de partenaires comme l'Institut

Technologies et création

Certains artistes ont également su saisir les opportunités offertes par ces nouvelles technologies. Tout naturellement, ils mêlent aujourd'hui leur art aux techniques les plus avancées. Mikel Dalbret a choisi d'être artiste peintre au Pays Basque. La solitude du créateur l'a poussé à chercher, à travers l'informatique et Internet, de nouveaux modes de communication, une autre manière de travailler et de rencontrer le public. "L'une des grandes difficultés, pour un

artiste, est de parvenir à faire connaître son travail", explique-t-il. "D'autre part, les tableaux sont coûteux, et je cherchais un moyen de vendre mon travail à des prix plus abordables. Je me suis donc équipé d'un ordinateur, et je réalise aujourd'hui, à partir de mes créations originales, des estampes numériques que j'ai déjà eu l'occasion d'exposer à Sare, lors du dernier Biltzar des écrivains, ainsi qu'à Gernika. J'ai également créé un site Internet sur lequel je propose une exposition virtuelle de mes tableaux

les plus récents." Conforté dans ses choix par les réactions très favorables du public lors de ses récentes expositions, Mikel Dalbret poursuit son travail de recherche et de création dans son atelier de Sare, un œil rivé sur l'écran de son ordinateur. "Grâce à Internet, nous pouvons regarder le monde, nous abreuver d'idées et d'images, et aussi montrer au monde ce que nous faisons. C'est une opportunité très intéressante et très enrichissante pour la culture basque."

La révolution de la communication est donc en marche. Pour devenir accessible à tous, elle devra inmanquablement s'accompagner d'efforts de formation - déjà entamés dans l'ensemble du Pays Basque - et d'intégration de ces nouvelles technologies au système scolaire et universitaire. Elle pourra alors devenir source d'idées nouvelles et outil de création, au service du monde culturel.



Euskal prentsak komunikazio teknologia berrien uhaina ongi negoziatu du. ARGIA astekaria egiteko, Ametzagaiña taldeak (*) informatika eta elektronika aspalditik baliatzen ditu. 97ko abendutik, Interneten eskaintzen ditu bere kultur edukiak eta zerbitzuak : ARGIA astekari osoa, euskal kulturaren aurkibidea (7000 erreferentzia dauzkana) eta euskal kulturaren haria (2000 harpidedunei egunero bidalitako informazioak), besteak beste. Pello Zubiriak adierazten digunez, taldearen ideia beti izan da euskal kultura eta euskal komunikabideak teknologian ahalik eta aitzineko puntan ibiltzea.

Nolako kontextutan sartu zineten Interneten ?

Gu baino lehenago hasitakoak baziren : Nafarroako "Ttipi-ttapa" hamabostekaria izan da lehena bere eduki guztia Interneten jartzen. Gurekin batera sortu zen baita ere Jalgi izeneko zerbitzaria, Elkarlanean-ek jarri zuena martxan. Unibertsitateko teoria egiten zuten Interneti buruz, baina gauza gutti egiten beraiek. Orduan bezala, gaur ere ikusten dugu Euskal Herrian ez gaudela puntan. Katalanekin sentitzen dugu inbidia handia, aurreratuagoak baitira. Internet oso sartua da gizartean, eta Internet sartua izateak esan nahi du informazioak eta zerbitzuak katalanez aurkitzeko guneak badirela denetan, katalana hizkuntza gaizki den lekuetan ere. Gure helburua hori da : gure lana ongi egin, eta inguruko lagundu ahal dugun neurrian, euskaraz bizitzeko gure helburu orokor horretan teknologia laguntzaile bat izan dadin.

Nolako lekua du euskarak Interneten eskaintzen dituzuen zerbitzuetan ?

Gu salatzen gara gure gunean sartzen den batek, nahiz eta euskara ez jakin, uler dezala zer den barruan. Orduan bada nabigabilitate bat ingelesez, frantsesez eta gaztelaniaz. Zenbait gauza, adibidez euskal kulturaren aurkibidea hasieratik lau hizkuntzetan ezarri dugu, nahi dugulako euskaraz ez dakien jendea ere hurbil dadin euskal kulturara. Baina hor bada muga bat guk gaingitu nahi ez duguna : hasten bagara bi hizkuntzetan funtzionatzen, beti euskara galduko dugu. Orduan, gure edukiak eta gure aberastasuna pilatzen saiatuko gara euskaraz. Gero, beste sozio batzuekin posible bada gauza batzuk egitea bai frantsesez, edo espainolez edo ingelesez, egingo dugu problemarik gabe.

Nork bisitatzen ditu zuen guneak ?

Esaten dute Euskal Herrian familien %7 Interneten daudela. Momentu honetan, 500 bat pertsonak bisitatzen gaituzte egunero : euskararekin lotura duen jendea, eta gure zerbitzuekin interesatua dena. Askok lantokitik sartzen da : unibertsitate, eskola eta horrelakoetatik. Beraz, asteburuetan bisitak jeitsi egiten dira, eta aste barruan igo egiten dira. Pixkanaka ikusten da euskal jendea ere ari dela parte hartu nahian : gutunak idazten ditu, kritikatu edo txalotuz. Hor ere paperean baino "feed-back" gehiago dela esan dezakegu. Gero, mundutik zehar ere sartzen da jendea hori oso inportantea da guretzako. Euskal jatorria aitortzen dutenak 10 milioi omen dira munduan. Baina zenbatek daki euskara ? Eta zenbat da Euskal Herriaz interesatua ? Orduan, tartean Hawaitik adibidez jasotzen dugularik ohar bat edo eskakizun bat, oso estimulantea da. Internetek ematen ditu aukera oso onak. Baina jakin behar da kokatzen eta lan egiten, beti ere minoria bat izango garelako ohartzu.


Geroari begira, prest zarete desafio berriei aurre egiteko ?

Guk uste dugu gure kapitalik inportanteena pertsonak direla. Pertsonak gero ta autonomoago bagabiltza gure egituraren barruan, kapable izango gara desafio berriei aurre egiteko. Guretzako kezka handiagoa da ikustea Euskal Herrian, nukleo bat dei dezakegun horretan gauzak fite doazela. Eta aldiz periferian gauzak gero eta okerrago. Ikusten dugu Iparraldea, batez ere barnekaldea hustutzen eta hiltzen ari dela. Eta hor bai egin behar genuke indar bat orain teknologia berriek eskaintzen dituzten sinergiak hobeki baliatzeko. Uda aitzinetik zerbaitek egingo dugu hor bide berri bat markatzeko, bai Nafarroan, bai Iparraldean, nolabaiteko elkarlan batzuk planteatuz. Orain da momentua esateko : dena ez da izango Frantsesen eta Espainolen kulpaa, guk ere zerbaitek hobeto egin beharko dugu. Eta guk egingo dugu gure heinean.

(*) Ametzagaiña taldeak Lasarteko hiru enpresa hauek elkartzen ditu : ARGIA astekaria argitaratzen duen KOMUNIKAZIO BIZIAGOA enpresa, ANTZA inprimategia eta ADUR informatika enpresa.

Hauxe diote

Paxkal INDO
Kulturan enpresako arduraduna



horiek naturalki baliatuko ditugu. Orai IKUS musika talde berria grabatzen dut

Noiztik eta zertarako erabiltzen dituzu teknologia berriak ?

Duela hamar urte hasi nintzen ordenagailuekin lan egiten. Beti musikan ari izan naiz eta aski goiz hasi nintzen ordenagailuak behatzen, ikusteko zer egiten ahal zen. Pixkanaka-pixkanaka, musika eta PAO (ordenagailuz lagundu programakuntza) eginez, "multimedia" horretan sartu nintzen. Orain elkarte edo lagun batzuek web orrialdeak edo CD Romak egiten segitzen dut, bai eta musika grabatzen ere. Txakun taldearen azken diska ordenagailuekin egin genuen etxean. Musika mailan, denetarik egin daiteke ordenagailuen laguntzaz : grabaketa, ekoizpena, eta sorkuntza. Orain, ZAUND deitutako ene proiektuarekin adibidez, ohizko tresnak eta musika teknologikoak nahasten ditut. Gauzak ez dira hainbeste klasifikatu behar. Bestela, mamia galtzen duzu. Eta enetako, mamia da sorkuntzaren interesa.

Nolako harremana izan behar du euskal kulturak teknologia berri horiekin ?

Uste dut ez dela euskal kultura lotu behar teknika berrikuntzari. Teknika hor da eta jendeak baliatuko du. Egin behar dena zera da : teknika horiek baliatzen dituztenak euskal kulturari lotzea. Gazte guziek baliatzen dituzte teknika horiek, eta ez badira euskal kulturatik urruntzen, ez da arazorik izanen. Ene gustoko, alderantziz pausatzen dugu arazoa : nola lotu teknika gure kulturari. Baina galdera hauxe da : nola atxiki gure kultura. Gure kulturari atxikiak bagara, tresna

eta ordenagailuetan egiten dugu musika guzua, baita ere programakuntza. Hor ikusten dugu hamar urtez sekulako urratsa egina izan dela. Euskal kultura teknologia horiei lotua da, guk, euskal kultura mundukoek teknika horiek manatzen dituztenak lotu nahi baditugu. Egiazko nahia izan behar da.

Nola ikusten duzu teknologia berrien paisaia Euskal Herrian ?

Gure gizartea bitxia da : arrunt lotuak gara gure iraganari, eta oraingo teknologia berriak gureganatu nahi ditugu, baina eroek bezala. Baditugu horrelako kontradizioak. Politikoki hego Euskal Herrian, izugarria da nola lotu diren Interneti : informazioa, agiri bakoitza segidan eman behar da Internet-en. Baina ez dute agintariak egiten. Gero baditugu teknologia horiek normalizatzen dituzten pertsonak : hauek gazteagoak dira, ordenagailuekin eta telefono mugikorrekin sortuak. Beste belaunaldi bat da. Aski kontent naiz transizionean izateaz, hori dena bizitzeko aukera dudalako. Internet eta teknologia horiek "errebeldoreak" bezala ikusten ditut. Segur naiz euskal kulturak bere bidea egiten duela teknologia horiekin, gure nortasuna ez badugu galtzen. Ni euskaldun sentitzen naiz, uste dut euskal kulturaren aktore bat naizela, eta bistan dena, informatikarekin lan egiten dudanez, hiruak naturalki nahasten dira.

Ce qu'ils en pensent

Francis JAUREGUIBERRY

Sociologue, maître de conférences à l'Université de Pau (*)



Que peuvent apporter les nouvelles technologies de la communication du type Internet à la culture basque ?

En ce qui concerne la langue basque, Internet va permettre à nos auteurs, à nos artistes et à nos associations euskaldun de pouvoir diffuser leur production avec une facilité jamais vue par le passé. Les proches linguistiquement mais lointains géographiquement - la diaspora - vont donc pouvoir expérimenter une nouvelle pratique de leur langue et une nouvelle solidarité culturelle. L'échange interactif de textes, de sons et d'images, est une chance pour des langues minoritaires comme la nôtre. En ce qui concerne le contenu de la culture produite, la situation est plus délicate. Cette culture-là est en effet en concurrence avec une offre grandissante et de plus en plus séduisante issue de centres de production chaque fois plus efficaces. Il faut donc que la culture basque "fasse le poids". Bien sûr, la proximité est dans bien des cas irremplaçable : la création locale n'est alors pas directement menacée. Mais dès qu'elle est médiatisée, elle entre en concurrence, et il faut donc qu'elle se donne les moyens de ses ambitions. En particulier au niveau de la qualité de présentation, de traduction, et de diffusion. Sans cela, nous serons perdants, condamnés à faire de l'animation locale et à consommer de la production internationale.

avec la possibilité d'obtenir une très grande qualité et atteindre un public jusqu'ici non joignable. Mais, d'un autre côté, j'observe surtout une espèce de technologisme à la fois euphorique et un peu creux. Tout le monde parle en effet d'Internet, d'ordinateurs, de bande passante, comme si cela suffisait. Mais ce ne sont que des moyens, des tuyaux ! En Pays Basque, heureusement, nous n'avons pas que des tuyaux : nous avons aussi d'excellentes sources. Mais trop d'eau culturelle se perd ! Nous manquons de professionnels de la médiation. Il faut absolument se poser la question de la médiation culturelle en Pays Basque, en particulier celle qui passe par les nouvelles technologies de la communication.

Quelle place pour des cultures minoritaires comme la culture basque dans un réseau mondial de communication, parfois décrié comme instrument de la "globalisation" ?

J'observe un mouvement très pervers qui, partant de l'universalisme et de la globalisation d'Internet, en déduit au particularisme et à la singularisation du local. Il est ensuite aisé de dire que les particularismes locaux vont à contre-courant de l'évolution générale de nos sociétés vers plus de rationalité, d'universel et de mouvement. Ce mouvement me paraît dangereux car il semble ne laisser d'autre possibilité à ceux qui veulent rester fidèles à un attachement local que l'enfermement dans un communautarisme rétrograde. Il faut donc rejeter cette dichotomie simpliste. Il faut au contraire affirmer la figure complexe de l'utilisateur d'Internet comme un sujet capable d'articuler sans jamais les fusionner appartenance locale et communautaire, et aspirations universelles. La culture basque a tout à y gagner.

Quel regard portez-vous sur les comportements du milieu culturel basque vis à vis de ces nouvelles technologies ?

D'un côté, on pourrait être optimiste en se disant que ces instruments peuvent être ceux d'une régénérescence culturelle. Dans certains secteurs, ils permettent en effet une création totalement décentralisée,

(*) Francis Jaureguiberry s'appête à faire paraître un ouvrage sur les usages du téléphone mobile.

- 6 - 21 h - Hiribururu / St-Pierre d'Irube (Gaztetxea) :** concert/kontzertua Oskorri taldearekin.
Xehetasunak / Renseignements : Uhaina, Tél. 05 59 44 22 39.
- 7 - 16 h 30 - Itsasu/Ixassou (Gaztetxean) :** "Xalbador, bat-bateko mirakulua", Xabier Amurizarekin.
- 7 - Egun osoan/toute la journée - Bidarraiko feria / Foire de Bidarray - 17 h 30 :**
Groupe de chanteurs des Philippines : "Madrigal singers" (à l'église/elizan).
- 7 - Donostia/Saint-Sébastien :** Dantzari eguna
- 7 - Egun osoan/toute la journée - Elizondo :** "12 ordu euskaraz"
- 8 - Hazparne/Hasparren :** Dantzari tiki
- 14 - Senpere/Saint-Pée-sur-Nivelle :** Herri urrats.
- 14 - 17 h - Biarritz (Gare du midi) :** Dantza/Danse : "La Chambre d'Amour"
(Ballets Biarritz et Orchestre régional Bayonne Côte-Basque).
- 17 - Basauri :** Ipuinaldia/Spectacle : "Maribil" (Koldo Amestoy eta Maddi Oihenart).
Xehetasunak/Renseignements : 05 59 29 40 50
- 18 - Iruñea :** Ipuinaldia/Spectacle : "Maribil" (Koldo Amestoy eta Maddi Oihenart).
Xehetasunak/Renseignements : 05 59 29 40 50
- 19 → 21 - Urđiñarbe/Ordarp :** Músikaren eguna. Xehetasunak / Renseignements :
Uhaitza - Tél : 05 59 28 44 46
- 19 - Ziburu/Ciboure :** Festival des trois cultures - **22 h 30 (pilota plaza/fronton) :** Kontzertua/concert :
Alaitz eta Maider - **21 h (eliza/église) :** Lluis Llach. Xehetasunak/Renseignements :
F3C - Tél : 05 59 47 33 78.
- 20 - Ziburu/Ciboure - Pilota plaza/Fronton :** Festival des trois cultures - Kantaldi :
Imanol eta Beñat Achiary. Xehetasunak/Renseignements : F3C - Tél : 05 59 47 33 78.
- 21 - Hendaia/Hendaye :** Txistu egunak. Xehetasunak/Renseignements : Euskal dantzarien biltzarra.
Tél : 05 59 44 09 02
- 27 - 21 h - Izpura/Ispoure (Salle "Faustin Bentaberry" gela) :** Dantza eta kantu/Danses et chants
avec le spectacle "Nahas-mahas" ikusgarria (Hiriburuko dantzariekin/avec les danseurs
de St-Pierre d'Irube).
- 27 - 21 h - Kanbo/Cambo-les-bains :** Antzerkia/Théâtre : "Je de dames" par le Théâtre Job.
Xehetasunak/Renseignements : Association Accords. Tél : 05 59 29 70 48.
- 28 - Egun osoan/Toute la journée - Donibane-Lohitzune/St-Jean-de-Luz :** "Udaberria dantzan".
Arratsaldeko 4etan plazan/A 16 h à la place : 7 probintzietako dantzak : Udala (Gasteiz),
Tronperi (Durango), Oinatz (Oñate), Arrola (Baigorri), Errege txopitak (Larrañe), Begiraleak
(Donibane-Lohitzune). Organisateur /Antolatzailea : Begiraleak. Tél. 05 59 51 13 90.

EKAINA / JUIN

- 1 - 21 h - Urđiñarbe/Ordarp (Centre d'animation) :** Musika/Musique : The Brasshoppers.
- 2 - Nabarrenkoxe/Navarrenx :** Tremplin des polyphonies (10 groupes en concours). Invitée d'honneur :
la Bretagne. Antolatzailea/Organisateur : Pyrène Océan organisation. Tél : 05 59 66 53 90.
- 3 - 21 h - Maule/Mauléon (Jai alai) :** "Ama" (Julian Gayarre eta Etxahun Iruri) ikusgarria (dantza, kantu,
musika/musique/chant, danse).
- 9 - 10 - 11 - Donibane-Garazi/Saint-Jean-Pied-de-Port :** Mendekoste xaramelan - Pentecôte musicale.
Xehetasunak/Renseignements : Garazikus. Tél : 05 59 37 06 04.
- 11 - 21 h - Donibane Garazi / St-Jean Pied de Port :** Kontzertua/Concert
avec le groupe berbère B'Net Marrakech (et résidence d'artistes pendant quatre jours).
- 24 - 18 h - Donibane-Lohitzune/Saint-Jean-de-Luz :** Begiraleak dantzan suaren inguruan.
- 25 - 12 h - Donibane-Lohitzune/Saint-Jean-de-Luz (place Louis XIV plazan) :**
Mutxikoak - Betti Betteluren omenez.

EZ AHANTZ.../A NE PAS OUBLIER

Euskal Herria zuzenean festibala Arrosan **ekainaren 30etik uztailaren 2ra**

Uztailaren 28 eta 29an/ Les 28 et 29 juillet : Stage de txalaparta et percussions dans le cadre du
Festival des trois cultures à Ciboure.

Uztailaren 21tik 29ra/Du 21 au 29 juillet : "Festival de la dame des aulnes" à Halsou.

"Madeleine De Jaureguiberry" pastorala - Eskiulan (Esquiule)

Uztailaren 23an/le 23 juillet - Agorriaren 5ean/le 5 août

QUESTION A... MINTZO

Thierry TRUFFAUT



Sur une idée d'Alain Labatjusan, le centre culturel Eihartzea de Hasparren propose un projet culturel itinérant original : TXILIN. Nous avons rencontré Thierry Truffaut, directeur scientifique du projet et auteur de l'importante exposition proposée (24 panneaux, 200 documents, textes en basque, français et espagnol).

Thierry Truffaut pouvez-vous nous expliquer ce qu'est TXILIN ?

Txilin c'est le son sacré de la cloche qui repousse, protège, favorise la vie, la fécondation. Les grelots, plus tard les grosses cloches furent utilisées, par tous les peuples de pasteurs dont, bien sûr, les Basques. Le projet Txilin essaie de parcourir ces traditions et ces pratiques culturelles d'hier et d'aujourd'hui.

Le sujet n'est-il pas trop pointu ?

Nous avons essayé de l'aborder d'une manière transversale par thème, cela facilite considé-

blement l'approche, pour les publics. L'exposition que j'ai réalisée avec la collaboration de mon ami l'ethnologue Jean-Dominique Lajoux, est construite par chapitres lisibles en continu ou en discontinu. On y découvre le sujet en Pays Basque et en Europe.

Mais TXILIN n'est pas uniquement l'exposition ?

Effectivement, dès le début nous avons souhaité construire un programme itinérant autour des aspects patrimoniaux et culturels. Nous proposons des conteurs (Koldo Amestoy et Michel Gardie), des conférences, le groupe de Joaldunak de Hasparren, un spectacle de voix et percussion de sonnailes venant d'Occitanie avec une exposition d'art plastique.

Pour les renseignements :

Contactez EIHARTZEA

64240 HASPARREN - tél : 05 59 29 43 36

LAN ESKAINTZA

Euskal Kultur Erakundeak "Euskara zerbitzua-ren" arduraduna bilatzen du.

Helburuak : Euskararen aldeko hizkuntza egitarau baten alhan ezartzea.

Eginbideak : Hizkuntza proiektuen laguntza eta gauzatu segurtatzea ; aholkuen ematea hizkuntza gaietan, euskararen aldeko kanpainen sustatzea, Hizkuntza kontseiluaren sortzeko elkarriketen segitzea.

Beharrezko gaitasunak : Euskararen ezagupen ona, proposamen eta ekimen izpiritua, komunikatzeko eta txostenen muntatzeko gaitasuna, informatikarako trebetasuna.

Hizkuntzak : euskara eta frantsesa (mintzatua eta idatzia), gaztelera eta inglesa ahalaz.

Hastapeneko formakuntza : Batxilergoa + 2 urte.

Igor zure motibapen gutuna eta C.Va 2000ko maiatzaren 10a aitzin ondoko helbiderat :
Euskal Kultur Erakundea - Lota Jauregia - 64480 UZTARITZE
Xehetasun gehiagorentzat, deit : 05.59.93.25.25

OFFRE D'EMPLOI

L'Institut Culturel Basque recherche un(e) responsable pour son "Service Euskara".

Objectifs : Mise en place progressive d'un programme linguistique en faveur de l'euskara.
Missions : Accompagner, conseiller, aider et assurer la réalisation de projets linguistiques ; soutenir des campagnes de sensibilisation et poursuivre le dialogue en vue de la création du Conseil de la langue basque.

Qualités requises : Connaissance approfondie de l'euskara, esprit de proposition et d'initiative, capacité à communiquer et à monter des dossiers, maîtrise de l'informatique.

Langues : basque et français, écrit et parlé, espagnol et anglais souhaités.

Formation initiale : Bac + 2 minimum.

Envoyez votre lettre de motivation et votre C.V avant le 10 mai 2000 à l'adresse suivante :

Euskal Kultur Erakundea / Institut Culturel Basque
Lota jauregia - 64480 Uztaritze / Ustaritz
Pour plus de renseignements : 05 59 93 25 25

GAZTE ENPLEGUA

HERRI SOINULARIAK elkarteak arduradun bat bilatzen du 2000ko ekainaren 1etik goiti, "GAZTE ENPLEGU" gisa.

Arduradunak lan hauek egin beharko ditu :

- barne eta kanpo komunikazioa
- elkartearen animazioa eta kudeantza
- txostenen osatzea, idatzea eta segitzea

Postu horrentzat galdetu gaitasunak hauek dira :

- informatikaren eta kudaketaren ezagutza,
- euskara mintzatua eta idatzia, gaztelera, ingelesa...
- esperientzia elkarte edo/ta kultura bizian.

Interesatuak motibazio gutun bat eta C.V. bat helarazi behar dute apirilaren 30eko, ondoko helbiderat : **Association Herri Soinulariak elkarte**

Chez Pierre HAIRA - Lilitegia 64480 UZTARITZE

Le C.C.A.S. (Caisse centrale d'activités sociales du personnel des industries électrique et gazière) embauche durant la saison d'été 2000

Offre d'emploi :

Animateurs culturels pour les centres de St-Jean-Pied-de-Port et Hendaye

L'animateur culturel : est placé sous la responsabilité du responsable principal, fait vivre la bibliothèque en mettant en valeur le fond de livres, en faisant circuler les ouvrages, anticipe, préparer les rencontres culturelles nationales (spectacles, écrivains...), développe des actions culturelles de la région, assiste le responsable pour la coordination des activités et leur promotion auprès des vacanciers. Formation universitaire dans les domaines littéraires, artistiques ou scientifiques. Sélection sur entretien. Rémunéré sur la base de 53,67 F/heure. Possibilité de logement.

Candidature à adresser à :

C.C.A.S. - Monsieur Merle - B.P. 73 - 40130 CAPBRETON
Tél : 05 58 72 21 14 - Fax : 05 58 72 70 44

BERRIKI ARGIRATARATUAK

Musika ■ Oskorri pub ibiltaria 4 (Elkarlanean) ■ Juan Carlos Perez (Elkarlanean)

■ Euskal ska eta reggae (Skunk diskak) ■ 2000 choristes (Coda music)

■ Oldarra Euskal Herri (Warner music) ■ Mikel laboa zuzenean 2 (Elkarlanean)

■ Skunk (Esan ozenki) - **Liburuak** ■ Izendegia - Prénoms basques (Elkarlanean)

■ Pays Basque et culture -Atxaga- (Cairn) ■ Le vieil Ustaritz -Duhart- (Atlantica)

■ La pratique actuelle du droit coutumier en Pays Basque (Eusko ikaskuntza)

■ Argia urtekaria (Argia) ■ Gara urtekaria (Gara) ■ Lapurdum IV (Département universitaire d'études basques de Bayonne) ■ Noce Basque 3 (Michel Oronos)

■ Habitat -Otero- (Txoria erronkan) ■ Desira izoztuak -Aizpurua- (Elkarlanean)

■ Zaudete geldi pixka batean -Egaña- (Elkarlanean) ■ P.B. 99 -Duverdier- (Mondarrain).

"Leihotik" N° 14

2000ko APIRILA / AVRIL 2000

Euskal kultur erakundearen berripapera

Bulletin d'information bimestriel de l'Institut culturel basque

I.S.S.N. : 1276 - 4779

Directeur de la publication : Pantxo Etehegoïn

Rédaction et/ou traduction : Maddalen Errotabehere

Jacques Larre, Frédéric Berrouet, Daniel Landart

Photos : Jean-Claude Broca

Maquette et impression : Imp. André Larré - Bayonne

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA / INSTITUT CULTUREL BASQUE

Lota jauregia / **Château Lota - 64480 UZTARITZE/USTARITZ**

Tél. 05 59 93 25 25 - Fax 05 59 93 06 84

E-mail : eke@wanadoo.fr - <http://www.eke.org>

Euskal kultura sustatzen duen herriarteko sindikata eta euskal kultur elkarteak partaidea. Estadao, Pirinio Atlantiarretako departamenduko Kontseilu orokorra, Akitania eskualdeko Kontseilua sustengatzailea. Avec le partenariat du Syndicat intercommunal pour le soutien à la culture basque et celui des associations culturelles basques. Subventionné par l'Etat, le conseil général des Pyrénées-Atlantiques, le conseil régional d'Aquitaine.